

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 29 egin dute gora 2022ko lehen 10 hiletan, eta, dagoeneko, 2021eko zifra osoak gainditzen dituzte

2022ko lehen hamar hiletan metatutako kanpo-saldoak 2.647 milioi euroko superabita izan du

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.833 milioi euro), 2022ko urrian, aurreko urteko hil beraren aldean, % 23,6ko igoera izan dute, produktu energetikoen % 78,1eko eta ez-energetikoen % 20,2ko igoeraren ondorioz, Eustaten datuen arabera. 2022ko urrira arte, esportazioen metatua 27.000 milioi eurotik gorakoa izan da; % 29ko igoera egon da, eta zifra hori 2021eko esportazio guztiena baino handiagoa izan da, orduan 25.665 milioi eurokoa izan baitzen.

Inportazioen kasuan (2.552 milioi), % 25,6ko igoera izan da. Inportazio ez-energetikoen % 20,6 egin dute gora, eta energetikoen, % 39,7.

2022ko urrian, merkataritza-saldo positiboa izan da (281 milioi) eta estaldura-tasa % 111,0koa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urria 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria			Urria		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.292.630	2.832.731	23,6	2.031.624	2.551.704	25,6
ENERGIAZKO GAIK	132.878	236.711	78,1	532.122	743.298	39,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	2.159.751	2.596.020	20,2	1.499.502	1.808.406	20,6
URTEKO METATUA	20.983.982	27.072.085	29,0	16.937.345	24.424.593	44,2
ENERGIAZKO GAIK	1.114.932	2.365.087	112,1	3.581.225	7.078.216	97,6
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	19.869.050	24.706.997	24,3	13.356.120	17.346.377	29,9
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	687.359	875.491	27,4	421.034	470.924	11,8
URTEKO METATUA	5.994.642	7.750.526	29,3	3.649.753	4.689.425	28,5
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	862.223	1.118.317	29,7	1.199.582	1.580.973	31,8
URTEKO METATUA	8.412.640	11.139.148	32,4	9.530.032	14.934.863	56,7
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	743.048	838.923	12,9	411.008	499.806	21,6
URTEKO METATUA	6.576.700	8.182.410	24,4	3.757.559	4.800.305	27,8

Data 2022ko Abenduaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoen hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte, eta igoera-ehunekoa % 27,4koa izan da Araban, % 29,7koa Bizkaian eta % 12,9koa Gipuzkoan. Arabako esportazio ez-energetikoen % 27,4 egin dute gora; Bizkaikoek, % 21,0, eta Gipuzkoakoek, % 12,7. Esportazio energetikoen, Bizkaia kasuan, % 78,1 egin dute gora.

Arabian, esportazioak honako hauetan kontzentratu dira hilabete honetan: “Garraio-materiala” (guztizkoaren % 59), % 33,7ko igoerarekin (517,2 milioi esportatu, guztira) eta “Metalak eta haren manufakturak” (urte arteko % 42,0ko igoera).

Gipuzkoan, gora egin dute bi arantzel-partida nagusien salmentek: “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 14,3) eta “Metalak eta haien manufakturak” (% 9,5). Baina rankingeko hirugarrenak, “Garraio-materiala”k, atzera egin du % 12,1.

Bizkaiaren kasuan, berriz, hazi egin dira “Garraio-materiala” partidaren esportazioak (% 40,8), bai eta “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 35,9), “Produktu kimikoak” (% 54,0) eta “Produktu mineralak eta energetikoak” (% 75,5) partidenak ere.

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2022ko urria

2022ko urrian, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Belgika) eratu dute Euskal AERen bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 49,5 hartzen dute (1.402 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 64,4 dagokio.

Alemaniarra eginiko esportazioek % 36,7 egin dute gora; Frantziarra eginikoeak, % 13,8; Estatu Batuetara eginikoeak, % 6,5 eta Belgikara eginikoeak, % 38,0. Italiara, Portugalera eta Herbeheretara eginikoak ere areagotu dira (% 32,2, % 28,3 eta % 47,4). Europatik kanpora, Marokokoak, Mexikokoak, Brasilekoak, Txinakoak eta Singapurrekoak handitu dira (% 182,5, % 36,1, % 51,3, % 9,5 eta % 955,3, hurrenez hurren) eta behera egin dute, nabarmen, Errusiakoak (–% 81,1).

Gure inportazioen % 42,7 EB27tik etorri dira. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Polonia nabarmentzen da gehien, % 46,1eko urte arteko hazkuntza izan baitu, bai eta Herbehereak ere, % 45,9ko hazkuntzarekin; ondoren, Alemania (% 1,5), Frantzia (% 6,2), Italia (% 9,1) eta Portugal (% 10,6) daude. Erresuma Batuan, % 35,9ko atzerapena egon da.

Munduko gainerako herrialdeak aztertuta ikusten da areagotu egin direla honako herrialde hauetan jatorria duten inportazioak: Estatu Batuak (% 125,1 eta 188 milioi inportatu), Brasil (% 112,4 eta 189 milioi inportatu), Txina (% 72,8 eta 213 milioi inportatu) eta Irak (114 milioi). Behera egin dute, berriz, Mexikokoak (–% 62,6 eta 47 milioi) eta Nigeriakoak (–% 97,5 eta 1 milioi). Errusiaren kasuan, % 51,1eko atzerakada egon da; 2021eko urrian 98,4 milioi izatetik 2022ko hil berean 48,1 milioi izatera igaro da; haietatik, 47 milioi “energetikoak” izan dira, zehazki, “Petrolioaren olio finduenak”.

Gure inportazio energetikoak honela banatu dira: 363 milioi Amerikakoak (% 48,8) eta, haietatik, 104 milioi Estatu Batuetakoak eta 177 Brasilekoak; 209 milioi Asiakoak (% 28,2) eta, haietatik, 114 milioi Irakekoak; 111 milioi Afrikakoak (% 15,0), eta 60 milioi Europakoak (% 8,0).

Merkaturatutako produktuak, 2022ko urria

Xehetasunak ikusteko, 2022ko urrian ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 43,3 kontzentratu dutela; baterako balioa 1.225,5 milioi eurokoa izan da.

Nabarmentzekoa da, talde horren barruan, “Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak” partidaren igoera handia: % 182,8 eta 35 milioi gehiago aurreko urteko hilabete berean baino; hil honetan, guztira, 54 milioi eta, haietatik, 42 Belgikara bideratuak. Arantzel-partida horrek, 2022ko urrira arte, 408,6 milioi metatu ditu, eta, hala, aurreko bi urteetako esportazio bateratuak (367,7 milioi) gainditu ditu.

Espektroa 25 partida garrantzitsuenetara zabaltzen badugu, nabarmentzekoa da “Arrain izoztua xerratu gabe” partida (% 243,4), 9 milioi esportatutik 30 milioira egin baitu. Honako produktu hauek ere igoera handia izan dute: “Biodiesela eta bere nahasketak”, Otik 31 milioira igaro dena; “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako”, 0 milioitik 51 milioira, eta “Hodiak

eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 117,6 eta 63 milioi esportatu).

Esanguratsuak dira, era berean, besteak beste, honako partida hauetako hazkuntza-tasak: “Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak” (% 72,4 eta 35,6 milioi esportatu), “Petrolioaren olio finduak” (% 101,1 eta 216,4 milioi; alegia, 108,8 milioi gehiago aurreko urteko hil berean baino), “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 62,1 eta 300,3 milioi esportatu) eta “Automobilentzako zati eta osagarriak” (% 31,4 eta 185,9 milioi esportatu).

Berariaz aipatu behar da, era berean, “Soja-olioa”ren esportazioek izan duten hazkuntza handia; 21,3 milioi eurora iritsi da eta produktu horren hil bereko 23,9 milioi inportatuekin lotuta egon daitezke.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.292.630	2.832.731	100,0	23,6
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	185.228	300.272	10,6	62,1
Petrolioaren olio finduak	107.631	216.424	7,6	101,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	141.393	185.852	6,6	31,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	156.180	149.587	5,3	-4,2
Kautxuko pneumatiko berriak	94.160	98.587	3,5	4,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	28.955	63.005	2,2	117,6
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	67.983	60.283	2,1	-11,3
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	19.114	54.046	1,9	182,8
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	0	51.445	1,8	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	46.339	45.951	1,6	-0,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	20.654	35.609	1,3	72,4
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	29.375	31.654	1,1	7,8
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	0	30.946	1,1	-
Arrain izoztua xerratu gabe	8.869	30.458	1,1	243,4
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	22.884	29.689	1,0	29,7
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	27.030	29.376	1,0	8,7
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	15.150	23.777	0,8	56,9
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	14.961	23.726	0,8	58,6
Xafien bidez eralkuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	11.726	23.724	0,8	102,3
Ardoa, mahats freskoarena	22.127	22.249	0,8	0,6
Soja-olioa	145	21.287	0,8	14.619,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	19.583	21.084	0,7	7,7
Metal arrunten giltzarro, sarraila, morroilo eta giltzak	16.182	20.888	0,7	29,1
Landu gabeko aluminioa	22.165	20.117	0,7	-9,2
Turboreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	16.425	19.976	0,7	21,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, garrantzitsuenak, “Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak” (guztizkoaren % 25,3) partidak, % 47,6ko hazkuntza izan du, 2021eko hil berean baino 208,2 milioi gehiago, 646 milioiko guztizko erosketetan, honela banatuta: 177,0 milioi Brasilekoak, 114,4 milioi Irakekoak, 111,0 milioi Libiakoak, 91,1 milioi Kazajstánekoak, 70,4 milioi Estatu Batuetakoak, 41,9 milioi Mexikokoak eta 40,2 milioi Trinidad y Tobagoak.

Joera positiboa izan dute, era berean, arantzel-partida nagusi gehienek, eta honako hauen igoera nabarmentzen da: “Biodiesela eta bere nahasketak” (20,4 milioi inportatu eta 30,9 milioi esportatzen dira); “Soja-olioa” (23,9 milioi inportatu eta 21,3 milioi esportatzen dira), eta “Ongarri mineral edo kimiko nitrogenatuak” (18,0 milioi inportatu eta 3,4 milioi esportatzen dira). Nabarmentzekoak dira, era berean, honako hauen hazkuntza: “Soja-babak, baita hautsiak ere” (% 252,1 eta 36,8 milioi),

“Metagailu elektrikoak eta haien zatiak” (% 170,3 eta 45,2 milioi) eta “Motozikleta eta bizikleten zati eta osagarriak” (% 89,4 eta 33 milioi), “Enboto, diesel edo erdi-diesel motorrak” (% 31,3 eta 47,6 milioi inportatu) eta “Landu gabeko aluminioa” (% 43,2 eta 26,6 milioi).

Nabarmen egin dute atzera honako hauen inportazioek: “Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak” (–% 46,6 eta 30,8 milioi gutxiago aurreko urteko hil berean baino) eta “Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak” (–% 55,6 eta 50,1 milioi gutxiago aurreko urtean baino)

ARABA. Esportazioak 2022ko urrian

Araban, esportazioek % 27,4 egin dute gora, neurri handi batean hil honetan honako partida hauek izan duten igoera handiagatik: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 63,9 eta 298,4 milioi esportatu, guztira, aurreko urtean baino 116,4 milioi gehiago) eta “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 264,1 eta 55,9 milioi esportatu, aurreko urteko hil berean baino 40,6 milioi gehiago). Esportatzeko ahalegin horretan, honako hauek ere parte hartu dute: “Ibilgailuen zati eta osagarriak” (% 28,8 eta 50,0 milioi) eta “Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak” (9,2 milioi esportatu).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2022

f t e Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	687.359	875.491	100,0	27,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	182.028	298.402	34,1	63,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	156.067	149.581	17,1	-4,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	15.367	55.949	6,4	264,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	38.861	50.046	5,7	28,8
Kautxuko pneumatiko berriak	31.438	37.539	4,3	19,4
Ardoa, mahats freskoarena	20.070	19.851	2,3	-1,1
Metal arruntzeko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	7.745	11.191	1,3	44,5
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	0	9.186	1,0	-
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	195	8.787	1,0	4.412,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	18.235	7.724	0,9	-57,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2022ko urrian

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 29,7 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta. Hamar partida nagusietatik, kopuru osoaren % 49 baitira, esportatzeko ahaleginean honako hauek egin dute ekarpenik handiena: “Petrolioaren olio finduak” (% 101,3ko hazkuntza eta 213,8 milioi esportatu), “Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak” (% 188,2 eta 50,8 milioi esportatu), “Biodiesel eta bere nahasketak” (30,9 milioi esportatu), “Soja-olioa” (21,3 milioi) eta “Arrain izoztua xerratu gabe” (29 milioi).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	862.223	1.118.317	100,0	29,7
Petrolioaren olio finduak	106.183	213.777	19,1	101,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	52.553	67.956	6,1	29,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	62.261	60.511	5,4	-2,8
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	17.636	50.830	4,5	188,2
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	0	30.946	2,8	-
Arrain izoztua xerratu gabe	8.023	28.960	2,6	260,9
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	19.598	25.447	2,3	29,8
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	23.642	24.068	2,2	1,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	10.716	22.502	2,0	110,0
Soja-olioa	145	21.287	1,9	14.619,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2022ko urrian

Gipuzkoako esportazioek % 12,9 egin dute gora eta, partida nagusien artean, honako hauen hazkuntzak nabarmentzen dira: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako”, guztira 51,4 milioi esportaturekin, eta, haietatik, Israeli 14,7 milioi dagozkio, Italiari 8,6 milioi, Norvegiari 8,3 milioi, Finlandiari 7,7 milioi, Suediari 7,7 milioi eta Belgikari 4,4 milioi; “Automobilentzako zati eta osagarriak” (% 35,8 eta 67,9 milioi); “Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak” (% 33,2 eta 19,7 milioi), eta “Papera eta kartoia iztukatu eta estali gabea, helburu grafikoekin, bobinetan edo zulatzeko orri eta zintetan” (% 27,9 eta 16,4 milioi esportatu).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	743.048	838.923	100,0	12,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	49.979	67.850	8,1	35,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	65.784	56.367	6,7	-14,3
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako	0	51.445	6,1	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	31.904	29.652	3,5	-7,1
Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	14.773	19.671	2,3	33,2
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	18.529	18.338	2,2	-1,0
Iztukatu eta estali gabeko papera eta kartoia, helburu grafikoekin, bobinetan edo zulatzeko orri eta zintetan	12.818	16.393	2,0	27,9
Ontziak eta paketatze aparatua garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	14.908	15.184	1,8	1,8
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	15.600	14.792	1,8	-5,2
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	18.864	14.603	1,7	-22,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2022KO METATUA (URTARRILA-URRIA): kanpoko saldoak 2.647,5 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 110,8koa da

2022ko lehen hamar hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 29,0ko urte arteko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 6.088 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea 27.072 milioikoa izan da, eta kopuru horri Bizkaiak egin dio ekarpenik handiena, 11.139 milioikoa (guztizkoaren % 41), gero Gipuzkoak (8.182 milioi) eta, ondoren, Arabak (7.751 milioi).

Bizkaiko esportazioek, gainera, urte arteko hazkuntza handiena izan dute (% 32,4), 2021ean baino 2.727 milioi gehiago. Araban, hazkuntza % 29,3koa izan da (1.756 milioi gehiago) eta, Gipuzkoan, % 24,4koa (1.606 milioi gehiago).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da esportazioek hazkuntzak izan dituztela, bai "Produktu energetikoenek" (1.250,2 milioi gehiago), bai "Produktu ez-energetikoenek" (4.837,9 milioi gehiago 2021eko aldi bereko metatua baino).

Gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 41,3 kontzentratzen dute, 11.175,3 milioiko zenbatekoarekin.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Urria 2022

   Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	27.072.085
1	2710	Petrolioaren olio finduak	2.177.284
2	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.147.246
3	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.790.255
4	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.466.763
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	1.037.049
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	716.553
7	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	538.727
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	486.128
9	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	408.611
10	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	406.667
11	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	374.894
12	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	358.402
13	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	319.152
14	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	315.584
15	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	268.781
16	7308	Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	230.830
17	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, engrageak....	223.180
18	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	219.679
19	1518	Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	218.765
20	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	216.537
21	7601	Landu gabeko aluminioa	215.812
22	8544	Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	210.785
23	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraigailuak, etab.	199.701
24	8301	Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	196.507
25	4804	Kraft papera eta kartoia, iztukatu edo estali gabeko, bobina edo orritan	190.891

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

“Petrolioaren olio finduak” Euskal AEko esportazio-bolumen handiena duen partida da (2.177,3 milioi esportatu eta % 130,7ko hazkuntza-tasa).

Gehien hazi diren produktuen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako” (% 990,7 eta 374,9 milioi euro esportatu) eta “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 117,2 eta 538,7 milioi). Lehen hamarren rankinga eratzen duten gainerako produktuen kasuan, nabarmentzeko moduko bilakaerak “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partidaren % 21,9 (2.147 milioi esportatu) eta “Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak” partidaren % 124,8 (408,6 milioi) bitartekoak izan dira.

Kontuan hartzeko moduko beste hazkuntza batzuk honako hauek dira: “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”, “Salgaiak garraiatzeko automobilak”, “Ibilgailuen zati eta osagarriak” eta “Kautxuzko pneumatiko berriak”; % 39,8ko, % 24,1eko, % 23,2ko eta % 17,7ko aldakuntza positiboak dituzte, hurrenez hurren.

Alemania izan da esportazioen helmugako herrialdeen sailkapeneko buru (4.236 milioi), eta, ondoren, oso gertutik, Frantzia (4.144 milioi) eta, urrunago, Herbehereak (1.806 milioi), Estatu Batuak (1.732 milioi) eta Erresuma Batua (1.671 milioi); hala, bost herrialdeen artean, esportazioen % 50,2 hartzen da. Estaldura-tasa, Alemaniaren kasuan, % 139,3koa izan da. Gainerakoen kasuan, tasa horiek % 200era iristen dira edo gainditu egiten dute kopuru hori, Estatu Batuen kasuan izan ezik (% 94,6), ez baita iristen esportazio eta inportazioen arteko orekaren tartera, eta, hala, herrialde horri dagokionez, merkataritza-balantza defizitariora izan da.


Euskal AErako **inportazioen** metatua 24.425 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2021eko aldi berean erregistratutakoa baino 7.487 milioi handiagoa dela ikusten dugu. % 44,2ko gorakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (14.934,9 milioiko balioa duten inportazioak ditu) % 56,7ko gorakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 5.404,8 milioi gehiago. Araban ere inportazioek gora egin dute, % 28,5, 1.039,7 milioi euro gehiago, eta, Gipuzkoan, % 27,8ko igoera izan dute eta 1.042,7 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 4.689,4 eta 4.800,3 milioi euro izan da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan.

“Produktu energetikoen” inportazioak % 97,6 egin du gora, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta “Produktu ez-energetikoenak”, % 29,9.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022ko lehen hamar hiletan, 2.647,5 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 110,8koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62